

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **Zerbitzariak:**

Gure aplikazioak funtziona dezan, ezinbestekoa izango da zerbitzari bat edukitzea. Ezinbestekoa izango da zerbitzari hauek fidagarriak eta kalitate onekoak izatea; izan ere, hauetan akatsen bat egonez gero, zuzenki gure aplikazioari eragingo dio. Horregatik, Amazon aukera ona iruditzen zaigu hornitzaile bezala.

- **Gure aplikazioa saltzeko plataforma:**

Aplikazioa herritar guztien esku egon dadin, ezinbestekoa da aplikazioen distribuzio digitalaz arduratzen den plataforma nagusietan gure aplikazioa argitaratzea. Plataforma hauen artean erabilienak Play Store eta App Store dira.